

Angularen arrantza Euskadin

2021-2022 Arrantza-denboraldia

LIZENTZIAK ON LINE



Euskal Herria izan da betidanik angularen -txitxardinaren- arrantza eta kontsumo gastronomikoaren sorlekua. Duela hainbat mendetatik datorkigun jardiera tradizional bat da angula-arrantza, eta "anguleroak" deitu izan zaie bahe edo salabar-do baten laguntzaz eta alboan farol bat zutela ibaiertzetan angulatan aritzen ziren gizonei.

Aplikatu beharreko araudia:

- Europako aingira EAEn berreskuratzeko kudeaketa-plana
- Otsailaren 18ko 41/2003 Dekretua (2003/02/27ko EHAA, 42. zk), maiatzaren 10eko 107/2005 Dekretuak (2005/05/20ko EHAA 94. zk) aldatua eta Europako Aingira EAEn Berreskuratzeko Kudeaketa Planak aldizkaria.

ARRANTZARAKO LIZENTZIAK

- Arrantzan jardun ahal izateko, beharrezkoa da **lizentzia pertsonal eta besterenezina** edukitzea, eta horrek arro edo gune mugatu baterako bakarrik ematen du arrantzan jarduteko aukera.
- Lizentziarekin **harrapaketei buruzko koaderno** bat doa. Bertan, honako hauek jaso behar ditu titularrak: harrapakinaren pisua, arrantzarako erabilitako bahearen diametroa, orduko botaldien zenbatekoa, eta arrantzaldi bakoitzeko botaldiko herresta-distantzia; horrekin batera, baita arrantzan jardundako eguna, ordutegia eta tokia ere.
- Arrantzaleak koaderno bar eraman beharko du beti berekin, arrantzaren datuak jasotzeko, eta **eskatutako informazioa eman** beharko du gauaren amaieran.
- Lizentzia **berritzeko**, ezinbestekoa izango da aurreko urteko arrantzaren datuak jasotzeko koadernoaren entregatzea, **apirilaren 30a baino lehenago** eta behar bezala beteta. Bestela ez zaio lizentzia berrituko hurrengo sasoiari.

LIZENTZIA MOTAK

Bi motatako lizentziak daude: **lehorretik** arrantzatzeko eta **itsasontzitik** arrantzatzeko; bata zein bestea arrantzasasoi bakoitzeko ematen dira eta iraunaldi berbera daukate.

ARRANTZA-APARAILUAK

"Bahea" edo "salabardoa" erabil daitezke arrantzarako; edozein eratakoa izan daitezke, baina gehienez 1,8 metroko diametrokoa. Eskuko aitzur bat erabili ahal da lagun bakoitzeko. **Debekaturik dago tresna mekanikorik edo bestelako arrantza-aparailurik erabiltzea.**

NEURRIA

Debekatuta dago 12 zentimetro baino gehiago duten ibai-aingirak harrapatzea.

DEBEKUAK

Harrapatutako angulak ezin daitezke **ez saldu eta ez tratuetan** erabili (6/1998 Legearen 18. artikulua).

ARRANTZA-SASOIA

Angula **2021eko azaroaren 15etik 2022ko urtarrilaren 31ra arte** harrapa daitezke.

GEHIENEO ARRANTZA

Lizentzia eta egun bakoitzeko, gehienez, **2 kg** harrapa daitezke.

DATUEN PROZESATZEA

Helburua Euskal Herriko angula-arrantzaren tradizioaren **iraupe-na bermatzea** da, eta baliabide horren **ustiaketa jasangarri** bat segurtatzea, espezie horren ezaugarri biologikoak kontuan edukiz.

LIZENTZIEN KOPURUA

Angula arrantzarako 2019-2020 denboraldian emandako lizentziak:

Arroa	Lehorretik	Itsasontzitik
Abra - Las Arenas	18	
Las Arenas - La Peña	109	
Artibai	16	
Bakio	2	
Deba	167	
Lea	26	
Oka	3	
Oria	172	48
Plencia /Gorliz	181	1
Urola	25	28
TOTAL	719	77